

Zementu gaineko artistak

Lur Mallea

Ez da negua kalean lan egiteko sasoirik onena. Aurten hotza berandu heldu dela kontutan hartuta, "gaitzerdi" pentsatuko dute kalean aritzen diren artistek. Temperaturak behera egiteaz bat korapilatzen da eguneroko zeregina beraientzat

Erropa asko jantzi beharra dute lanordu luzeak jasan eta bitartean zurrun ez geratzeko. Baina ez da hotza beraien arazo bakarra. Euria, udaltzainak, jendearen aurreiritzi zitalak... Lanerako eragozpen ugari izateak garrantzia handia du, kaleko artistetako asko oinezkoek txapelean uzten duten diruaz bizi baitira. Ez dira ez aberatsak, zementu gaineko artistak.

Arrazoi ugari bultzatzen dute pertsona kalean bere dohainak erakustera. Artista batzuk gustuko izaten dute jendearikiko hurbileko harremana, eta bidaiatu eta txanpon batzuk poltsikoratzeko aprobetxatzen dute abagunea. Herriz herri ibiltzen dira, udaberri zein uda garaian bereziki. Beste batzuk, aldiz, diru premia larriak behartzen ditu era original batean dirua eskatzera. Ondo egiten dakiten hori edo gutxi-asko menperatzen duten hori erakutsiz txanpon batzuen truke. Bizirauteko gauza ugari egiteko gai da gizakia.

Maria, panpina

Goitik behera zilarrez margotuta dagoen giza eskultura bezala egiten du lan Mariak. Kalean geldi-geldi egoten den artista horietakoa da. Panpin mozorroa darama eta jesarrita egoten da kanpineko aukitxo baten gainean. Eskuetan sagar bat izaten du. Hori ere zilar kolorekoa. Bilboko kale nagusian egin du bere txokoa jada. Moyua eta Jesusen Bihotza artean, "hor jende gutxiago egoten da eta nahiago dut, oinezkoek



erraz ikusten nautelako” dio 37 urteko emakume txikiak. Errumaniarra da jatorriz eta badira hiru hilabete bere herria utzi zuenetik, senarrarekin eta 17 urteko semearekin.

“Txiroa naiz”

Ez du ez dirurik ezta lo egiteko etxerik ere lortu Bilbon. Baina ez du Errumaniara itzultzeko asmorik. Han ez du ezer ere. Bere senar eta semea han-hemenka ibiltzen dira lan bila. Zamaketak eginez jarduten dute batzutan. Euskal Herrira iritsi berritan, Maria eskean aritu zen kalean, harik eta giza eskultura bat ikusi zuen arte. Orduan erabaki zuen berak ere kaleko artista izatea. Panpina mozorroa eta zilar koloreko margoa eskuratu, etxe artean, bazter batean prestatu eta orduak ematen ditu eskultura bihurtuta mugitu gabe. “Txiroa naiz eta jatekoa behar dut” dio gaztelera urrian. Lau orduz egoten da goizero Bilbon eta hiru bat orduz Barakaldon arratsaldero. Hiru kamiseta jantzita beti ere mozorroaren azpian. Hotzari aurre egiteko era bakarra da.

“Arazorik ez poliziarekin”

Mariak, orain artean, udaltzainekin arazorik ez duela izan aitortu du. “Hitzik egiten ez baduzu eta inori enbarazu egiten ez badiozu, poliziarekin ere ez duzu arazorik” dio. Kalean, tarteka, bihotz oneko jendea topatu du. Gehienek dirua ematen diote. Beste batzuk gobernuaz kanpoko erakundeen

helbideak, laguntza jaso ahal izateko. Baina Maria galdu xamar dago, hizkuntza gutxi ulertzen duelako. Hitz berberak errepikatzen ditu elkarriketan zehar: txiroa dela, ez duela ez lanik ezta etxerik ere, eta jatekoa behar duela. Gainera, buruko eta bizkarreko mina sentitzen hasia dago ordu asko geldu emateagatik. Eskatzen hasita, urte berriari lana eta etxe bat izatea eskatuko lioke.

Emakume gutxi

Kopuru aldetik, emakume artista gutxi topa daiteke gure hiri eta herrietan. Antzetztu, dantzatu, kantatu edo beren sormenak erakutsiz ikusi izan ditugu, ia beti gizonen aldamenean. Bakarka dabilzanak oso gutxi dira. Egunero kalean lan egitea oso gogorra baita edonorentzat. **F**

